

azken portuko tabernan • gorka erostarbe

NORTASUN AGIRIA

Ibarran jaio nintzen duela 30 urte. Lehen ikasketak Ibarako ikastolan egin nituen; BBB eta UBI, aldiz, Tolosan. Leioan kazetari-tza amaitu nuen, eta Soziologiako ikasgai batzuk geratzen zaizkit, biak batera egin nituelako. *Egunkarian* bekadun aritu nintzen Nazioartean, *Argia*-n ere jardun nuen, eta Euskadi Irratian berehala hasi nintzen. 8 hilabeteko ordezkapen bat egin nuen. Hura bukatu, eta, une hartan ezer ez nuenez, Ingalaterrara alde egin nuen. Han nintzela eskaini zidaten Bruselara korrespontsal joatea. 1997an joan nintzen, eta iaz itzuli. Azken urte honetan, *Goizean behin* saioan aritu naiz, eta, irailaz geroztik, asteburueta informatiboak aurkezten dihardut.

Urdaiazpiko pintxo bat eta laranja zuku bat eskatu ditu gu iritsi aurretik. Lasai jazarri gara Tolosako Fronton kafetegiko mahai ugarietako batean. Zigarroa kide on duela nabari da, eta patxada handiz erantzuten ditu galderak, lagunek hainbat estimu dioten irribarrea sarri ahoan duela.

■ **Umetatik omen duzu kazetari izateko bokazio argia. Etengabe galderak egiten dituen haur horietakoa al zinen?**

Ez naiz ondo gogoratzen txikitan nolakoa nintzen. Nire amak esaten dit ikaragarri bihurria nintzela. Umetatik asko gustatzen zitzaidan idaztea, dena planteatzea eta horrelako gauzak. Gogoratzen naiz OHOk 6. mailan andereño bati galdetu niola zer egin behar den kazetari izateko, eta hark esan zidan egunkariak irakurri behar zirela egunero eta ingelesa ikasi. Eta berehala hasi nintzen ingelesa ikasten.

■ **Kazetaritza eta Soziologia ia aldi berean ikasten aritu zinen. Zer dira, oso ikasketa errazak ala zuk duzu ikasketetarako gaitasun berezia?**

Ez, ez... Nik esaten nuen nire artean, 'hainbeste gara Kazetaritzako eskolan, denontzat ez da lanik egongo. Nik zer edo zer egin behar dut'. Eta orduan, kazetaritzako lehenengo kurtsoa amaitu nuenean hasi nintzen Soziologiarekin.

■ **Lau urte igaro zenituen ondoren Bruselan. Ez al zenituen faltan ematen Ibarako piperrak?**

Ez, ez... Nik, normalean, Ibarako piperrak udan eta sanbartolometan jaten ditut, eta ordurako etortzen nintzen, uztaile bukaeran. Agian beste gauza batzuk sumatzen nituen faltan: batzuetan familia; bestetan lagunak; eta, bereziki, he-



Maite Artola

«Bidaiatzeak balio izan dit Euskal Herria zilborra ez dela konturatzeko»

mengo paisaia. Baina, oso ondo egokitu nintzen. Hara joan nintzanean frantsesez hitzik ez nekien, ingelesa apur bat, eta kurtso intentsibo bat egin behar izan nuen. Irratitik eskatzen zidaten egunero hango prentsaren laburpena egiteko, eta nik derrigorrean ikasi behar izan nuen.

■ **Sanbartolometan urtero etortzen zinen, beraz. Parranda zalea zaren seinale al da?**

Oso parranda zalea izan naiz, bai; orain ez hainbeste, baina, bai, izan naiz. Garai batean, bira oso bat egiten genuen jairik jai. Ondarroakoak oso gustuko nituen, esaterako.

■ **Bruselan izan ondoren, beste zenbait herrialdetan ere izana zara. Zein oroitzen duzu bakoitzetik?**

Bruselan nintzela, Europako Batasuneko gaiak jorratzen nituen, ia Europa osoa zeharkatu behar izan nuen; sei hila-

betero, leku batera joaten nintzen, eta hori eskertu behar diot Bruselan korrespontsal bezala lan egin izanari, nik asko atsegin baitut leku berriak ezagutzea. Bruselatik Donostiara etorri, eta berehala bidali ninduten Belfastera, Afganistanera, Jerusalemara... Belfastetik murrutik katoliko eta protestanteak oroitzen ditut, Afganistandik askotan etortzen zaizkit gogora hango begiradak, begirada izoztuak, eta Israeldik Yenin.

■ **Bidaiatzeak laguntzen omen du nork bere burua ezagutzen. Zuri lagundu al dizu?**

Bidaiatzeak balio izan dit Euskal Herria zilborra ez dela konturatzeko. Mundua askoz ere handiagoa dela ikusteko.

■ **Goizean behin lanean aritu zinen. Zer egiten zenuen gauean behin?**

Zer egiten nuen... (kar, kar)... lana.

Goizeko 02:00etan sartzen nintzen eta.

■ **Eta asteburuan behin?**

Asteburuetan, errekuperatu. Bizitza sozialerako eta nahiko ordutegi zaila izan dut egia esan.

■ **Aita famatu samarra duzu Tolosaldean, bere kirol erronkengatik eta. Zuri, aldiz, kirola...**

Zero. Bera ere lehen ez zen horrela. Nik gogoratzen dut, txikia nintzela, neurrik gabe erretzen zuela, eta ez zen mugitzen etxetik. Baina eman zion ero joerak eta... hamaika kros eta maratoni egindakoa da. Ni gazteagoa nintzanean, txikitan, ez nintzen gelditzen, baina, gaur oso bizitza sedentarioa daramat. Igeri egitea gustatzen zait baina... Eta ez dut uste aitari bezala adin batetik aurrera kirola egiteagatik emango didanik. Gustatuko litzaidake kirol gehiago egitea, baina ez berak bezain beste.

zirika



Estixu Breñas
Glez. de Zarate

Gasteizko Nazioarteko Antzerki Jaialdiaren kalitateaz hitz egin ohi da. Ez dut zalantzan jartzen, ez —antzerkia eta kalitateaz ari naizela... ez adiorik, Jon Gabella!—; gainera, antzerkiaren mundua gogoko izaki, egitarauak dakarrenaren berri badut. Haatik, kexu agertu bai, ikusle baztertua sentitzen naiz eta. Ez nator negar egitera, gasteiztarroi, euskarari dagokiona aldarrikatzera baizik.

32 obratetik 5 baino ez euskaraz, %15,6! —bakar bat helduentzat, *John Wayneren laguna* (Ados Teatroa); gainerakoak umeentzat—. Daturik datu, Gasteiz: 222.000 biztanle inguru (aurtengo datuak); Gasteizko euskaldunak eta ia-euskaldunak (1996ko

Kalitate herrena

datuak): 74.000 inguru (30.000 euskaldun, 44.000 ia-euskaldun). Gasteiztarron %35 gutxi gorabehera, herena baino gehixeago, euskaraz eta euskarazko antzerkiaren gozatzeko prest, beraz! Baina aukera hori non ote dago?

«Euskaraz dagoen eskaintza kulturala mugatua da, beti talde berberak, antzerki lan berberak. Eskaintza handiagoa eman behar lukete, baina hori ere denborarekin etorriko da» (2001-maiatz), zioen Kultur zinegotzi Encina Serranok; eta, dirudienez, oraingoan ere arduradunak euskarazko kalitatezko antzerki eskaintza zabalaz ohartu

barik dabilta; aspaldi etorria, gainera!

Hau ezjakintasuna! Gaurko helduentzako euskarazko lanen berri izatea otu lekieke, behinik behin: Trapu Zaharra (kale antzerkia); *Paketito*, 4. Tenorea; Ttataka: *Errudun jaiok* (iazko bakarra), *Hor dago Koxka*, *Ekaitz horien esku*; Tentazioa: *Komeriaka*, *Anarkista baten ezusteko heriotza*; Maskarada: *Kontenedore baten istorioa*; Maite Agirre (Agerre teatroa): *Emakumeak gori-gori*; Ados: arestian aipatutakoa, aurtan ekarria; Vaiven: *Lotsagabeak*, *Murphy gaintik kendu ezinda*; Hika: *Oihanaren legea*, *Ai, ama!;* eta Kanpingags-Txalo: *Biblia osoa gutxi gora-behera...*

Honi eskaintza urria al deritzo?